278. zk.
Bigarren aroa
Ekainak 1
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Sonia Bañezaren beste espedizio bat

10. orrialdean

Kirolak
Asobal Ligara igotzen saiatuko da Bidasoa

9. orrialdean

Janari bilketa egin dute Toki Alaiko ikasleek

3 Erreportajea Bioterra azoka.
4-5 Elkarrizketa Ana Grijalbari elkarrizketa.
6 Erreportajea Caser Anaka.
7 Elkarrizketa Luis Sagües "Olvidos del recuerdo"ren idazleari.
8 Kirolak Real Unionen denboraldi amaiera.
11 Haurren Leihoa San Vicente de Paul LH1.
12 Gazteen Lanak San Vicente de Paul DBH1
14 Gazte infor
15 Agenda

Argazki lehiaketa

Hodei Lasa
Ostadarra Jaizkibelen.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 40376

Geltoki kalea

1887ko ekainaren 25ean “Calle del ferrocarril” izena jarri zitzaion ofizialki, nahiz herri mailan geltokiko kalea ere deitzen zitzaion, bertan kokatua zegoelako Espainiako Iparraldeko Trenbide Konpainiaren geltokia, 1881 eta 1882 urteen artean eraikia. Frantsesek sortutako konpainia horrek, 1863ko urriaren 22an Irunera heldu zen lehenengo trena jarri zuen martxan, nahiz eta garai hartan Beasainen eta mugaren arteko tartea bakarrik zegoen funtzionamenduan.

1927ko apirilaren 12an, Viyella jaunaren proposamenez, “Miguel Primo de Rivera” izena eman zitzaion kaleari. Eskaintza horri Miguel Primo de Riverak gutun batez erantzun zion, udalaren erabakia eskertuz.

1931ko apirilaren 17an, gertatutako aldaketa politikoarekin batera, udalak erabaki zuen kaleari izena aldatzea eta, “Martires de Jaca” izena ipini zioten.

1937an, udalak berriro ere “Primo de Rivera” izena jarri zion. 1979ko irailaren 6an, gaur egungo izena ipini zioten: “Getoki kalea”

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Sektore ekologikoaren isla da Bioterra

Ficobako hiru pabiloiak hartuko ditu azokak, ekainaren 3tik 5era

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka da Bioterra. Hamahirugarren edizioa izango du aurten, Ficobak berak antolatuta. Erakustazokako hiru pabiloiak beteko ditu, eta espazio aldetik handitzen segitzeko mugak dituenez, modu kualitatiboan hobetzeko helburua jarri dute antolatzaileek. Puntako eragileak erakartzeko ahalegina egin dute.

Sektorearekin batera hazi da Bioterra azoka. Joan den urteko datuen arabera, %10 handitu da eragile ekologikoen kopurua, EAEn. Nekazaritza ekologikoarekin lotutako lur azalerak %4ko hazkundea izan du. Joera hori nabaritu da Bioterran, joan den urtean %30 handitu baitzen azokako bisitarien kopurua. “Gizarteak eta gaur egungo bizimoduak garapen eredu iraunkorra eskatzen dute”, adierazi du Mónica Alday zuzendariak. Bisitariaren profila espezializatuagoa izaten zen azokaren lehen edizioetan. Orain, ordea, gero eta zabalagoa eta anitzagoa da.

Ficobako hiru pabiloiak lepo betetzen ditu Bioterrak. Beraz, tamainan handitzeko aukerarik ez du, momentuz bederen. Horregatik, eskaintzaren kalitatea finduz ari dira arduradunak. Horretarako, sektorean esanguratsuak diren eragileekin harremanak estutu ditu Bioterrak. Aurten, kultura jasangarrian indarrez murgildu diren bi sektore txertatu dituzte azokan: arkitektura eta hirigintzarena, eta kosmetika ekologikoarena.

> “Gizarteak eta gaur egungo bizimoduak garapen eredu iraunkorra eskatzen dute”
> **Mónica Alday, azokako zuzendaria**

Arkitektura eta hirigintza jasangarriak

COAVN Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin lankidetzan dabil Bioterra azoka. 2015eko udaberriaz geroztik, Iraunkortasun Batzordea du elkargoak, eta norabide horretan lanean ari da. “Hiritarrengandik askoz hurbilago egongo den eta ingurumenarentzat horren kaltegarria izango ez den arkitektura eta hirigintza eredu bat zabaldu nahi dugu”, argitu du Claudia Pannese Iraunkortasun Batzordeko kideak. Jarduera multzo zabala eskainiko du arkitektoen elkargoak Bioterran, baina horietan nagusia, parte-hartze tailer bat izango da.

Maketa baten inguruan, hirigintza iraunkorraren printzipioak aplikatuko dituzte, inguru degradatu batean. Irungo gune bat hautatu dute: Iparralde hiribidean, Oteizaren tailerra hartu zuen etxea dagoen eremua. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaz gainera, Irungo Artefakto kolektiboak ere parte hartuko du ekimenean. Tailerrean aritzen direnen artean proposamen ezberdinak landuko dituzte, eta gainerako bisitariek bozkatu ahal izango dituzte. Hautatutako proiektua hurrengo hilabeteetan zehar martxan jarriko dute, eta 2017ko Bioterran emango dute lortutako emaitzen berri. 943 320194 telefono zenbakian edo sostenibilidad@coavnss.org helbide elektronikoan eman daiteke izena.

Kosmetika ekologikoa

Bioterran aspaldidanik lekua izan duen gaia izan da kosmetika. Baina bisitariengan azken urteotan sortu duen interesa kontuan hartuta, Biobeauty Gunea eskaini diote aurten. Lorena Aviñon Bilboko Nasei Belleza enpresako arduradunak azaldu ditu helburuak: “Kontsumitzaileak askotan kosmetika ekologikoan murgildu nahi izaten du, baina ez du jakiten zein produktu erosi. Informazio falta hori ikusita, informatzeko gune bat sortzea pentsatu genuen”.

45 minutu inguruko iraupeneko tailerrak eskainiko dituzte egun osoan zehar. Produktuen etiketak interpretatzen, edo landareetan oinarritutako errezeta zaharrak elaboratzen ikasiko dute, besteak beste. “Osasuna eta elikadura ez ditugu alde batera utziko, edertasunarekin estu lotuta daudelako”, gogorarazi du Aviñonek. Ziurtagiria daraman kosmetika ekologikoak azken urteotan izan duen hazkundea “oso nabarmena” izan dela azpimarratu nahi izan du Mónica Alday azokako zuzendariak.

> “Osasuna eta elikadura ez ditugu alde batera utziko, edertasunarekin estu lotuta daudelako”
> **Lorena Aviñón, Nasei Belleza enpresako arduraduna**

> “Hiritarrengandik askoz hurbilago egongo den arkitektura eta hirigintza eredua zabaldu nahi dugu”
> **Claudia Pannese, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Iraunkortasun Batzordeko kidea**

Guztira 190 erakusle egongo dira Bioterran, Ficobako hiru pabiloietan banatuta. Bakoitzak “mundu” ezberdin bat hartuko du. Bioterra Munduan nekazaritza, ehungintza eta kosmetika ekologikoarekin lotutako erakusleak eta jarduerak egongo dira. Naturall Mundua, osasunari eta ongizateari eskainitakoa izango da. Geobat Munduan, geobiologia, bioeraikuntza edota energia berriztagarriak izango dira protagonista. Guztietan hitzaldiak, tailerrak eta bestelako aktibitateak eskainiko dituzte. Ficobaren kanpoaldean, Bioterraza izendatu duten gunean, produktu ekologikoak dastatu ahal izango dira, eta haurrentzako puzgarriak egongo dira, gainera. Ekainaren 3tik 5era, goizeko hamarretan zabalduko ditu ateak Bioterra azokak. Hiru euro balioko du sarrerak, eta hamabi urtetik beherako haurrak doan sartu ahal izango dira.

Olaizola
Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

ANA GRIJALBA, Irunero aldizkariko arduradun ohia:

“Orain dudan denbora emateko behar morala sentitzen dut”

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Eguillor 1957 Bacalaos

Erretiroa hartu ondoren, bizimodu berrira egokitzen ari da Ana Grijalba. Ikusmenari eragiten dion erretinosi pigmentarioa izeneko gaixotasuna du, eta Gizarte Segurantzak ezgaitasun osoa eman zion 2014 urtean. Kazetari lana utzi behar izan zuen, ondorioz. ETBn, Radio Cuatron, Antena 3en, El Mundon, Txingudi aldizkarian eta Txingudi Telebistan aritzeaz gainera, Irunero aldizkariaren arduradun izan zen 1996tik aurrera, ia 20 urtez.

Erretiroa hartu duzu. Nola bizi duzu egoera berria?
Nire bizitza osoan zehar lan egin izan dut. Orduan, bat-batean jarduera moztu nuenean, euforia sentimendu bat bizi izan nuen. Uste nuen dena ideala izango zela. Baina konturatu nintzen, neurri batean, jarduera moztu ondoren ere, jarraitzeko beharra nuela. Ohitura bat zen, eta beharra neukan. Hausnarketa egin dut ondoren, uste dut estres maila apaldu behar dudala, motelago bizitzen ikasiz eta gauza txikiekin gozatuz.

Lanaren ordezkoak bilatzea ez da nire helburua. Gauzak etorriko dira. Momentuz frantsesa ikasten ari naiz, eta alabaren bitartez, Santiagotarrak Kirol Elkartearekin kolaboratzen ari naiz, 50.urteurrena dela eta. Etorkizunean, kultur eta gizarte arloko elkarteren batean murgiltzea gustatuko litzaidake. Orain dudan denbora emateko behar morala sentitzen dut.

"Uste dut estres maila apaldu behar dudala"

Urte asko eman dituzu eskualdeko informazioari lotuta. Jarraitzen al duzu aktualitatea, edo deskonektatzen saiatu zara?
Egia da gure lanbidean behar hori sentitzen duzula. Jada ez naiz horren zorrotza nire buruarekin. Dena den, hori ere ikasi behar da. Pixka bat urrutiratzen saiatzen naiz, baina ez da batere erraza.

25 urte inguru eman dituzu kazetaritzan. Zerk bultzatu zintuen bide hori hautatzera?
Aurre-matrikula Euskal Filologian egin nuen. Baina uda hartan gogoeta egin nuen, eta ez nuen nire burua ikusten ikasketa horiekin lotutako lanbide batean. Bestalde, kazetaria den osaba bat daukat, eta bokazio hori sentitu nuen: jendearekin harremanetan egoteko, mugitzeko eta jakin-mina asetzeko gogoa. Idazten ondo moldatzen nintzen, eta hizkuntza lantzeko aukera nuen. Kazetaritza euskara hutsean ikasi zuen lehen promozioko kide izan nintzen. Harro egoteko modukoa da hori.

Espero zenuena topatu zenuen karrera bukatuta?
Ilusio handiz hasi nintzen. Horrenbeste urte ematen ditugu ikasten, lan egiteko gosez ateratzen garela. Hortik aurrera, beti ibili izan naiz lanean. Soldata baten truke, edo debalde.

1996an hartu zenuen Irunero aldizkariaren ardura.

Erronka handi bat izan zen. Errespetu eta ardura handiekin heldu nion proiektuari. Baina aldi berean, euskaraz lan egiteko aukera oso pozik hartu nuen. Ordura arte izandako esperientzietan, euskararen presentzia oso txikia izan baitzen.

Zein asmorekin heldu zenion?
Euskaldunak ziren irundarrek edo euskalduntzeko bidean zeudenek, denek aurkitu behar zuten intereseko zerbait aldizkarian. Oso anitza izan behar zuen. Banekien irakurle guztiek ez zutela dena irakurriko. Baina beti erakargarri irudituko zitzaien zer edo zer bilatzea izan nuen helburu.

Artikulu luzeak eta astunak alde batera utzi nituen. Ez nituen irakurleak uxatu nahi. Irunerok ez zuen elite batentzako produktua izan behar. Maila jakin bat bermatu beharra zegoen, hala ere. Horiek izan ziren ardatzak. Gaiei dagokienez, inoiz ez dut arazorik izan, beti topatu izan ditut intereseko pertsonak, ekintzak, jarduerak etab.

"Errespetu eta ardura handiekin heldu nion Irunerori proiektuari"

Zeintzuk izan dira topatu dituzun zailtasunik handienak?
Batetik, edozein kazetarik bizi dituenak. Ematen du lanbide honek ezin duela inoiz prekarietatetik atera. Ez dela behar bezala baloratua. Sentitzen duzu lan asko egiten duzula, gogo asko jartzen duzula, baina ezin duzula inoiz egoera prekariotik atera. Hala ere, testuingurua zein den kontuan hartuta, ni zorionekoa izan naizela uste dut. Gaiei dagokienez, alardeekin lotutakoak izan dira esperientziarik okerrenak. Kazetari lana egiteagatik, gaizki pasa behar izan dut.

Eta oroitzapen onak?
Beti libre izan nintzela aukeratzeko. Beharbada ez nintzen horretaz konturatzen, baina hala zen. Bestalde, harremanak izateko aukera eman dit Irunerok, eta horrekin asko gozatu izan dut. Hori da nik nire lanbideari eskatzen niona, eta bete egin da. Nik ez ditut sekulako bidaiak eta abenturak eduki, baina harremanak izateko eta pertsona interesgarriak ezagutzeko aukera eman dit kazetaritzak.

Zertan aldatu da lanbidea 25 urtean?
Teknikaren aldetik, ikaragarri. Hasieran fax batekin lan egiten genuen, eta kronikak telefonoz diktatzen genituen, El Mundon, adibidez. Kalean baldin bazeunden, telefono kabina batetik. 1995era arte ez nuen ordenagailurik erabili. Idazmakinarekin ibiltzen nintzen. Internet garatzea sekulako iraultza izan zen.

Lan egiteko modua ere aldatu da. Gure helburua zen berriak guk geuk lortzea. Ez ginen prentsaurrekoen zain egoten. Telefonoa hartzen genuen eta zinegotzien atzetik ibiltzen ginen, adibidez. Gertutik jarraitzen genuen informazioa. Gaur egun ez da horrela egiten, askoz mugatuago dagoelako dena.

27 urterekin diagnostikatu zizuten erretinosi pigmentarioa. Zein eragin izan du zure lanean?
Batez ere, mugitzeko mugatua nagoela. Ezin dut gidatu, eta zenbait lekutara joateko laguntza behar izaten dut. Ahal izan dudan bitartean, lanean jarraitu dut. Orain adina gehitu behar zaio gaixotasunari. Ondorioz, egoera konplikatzen hasi da. Azken urteetan zailtasun gehiago izan ditut.

"Hasieran fax batekin lan egiten genuen, eta kronikak telefonoz diktatzen genituen"

Nola bizi duzu gaixotasuna?
Zorte handia izan dudala pentsatu izan dut beti. Ez da paradoxa bat. Kasu batzuetan, bost urteko epean itsu geratu izan da jendea. Niri, zorionez, ez zait gertatu. Oso pentsamendu positiboak izan ditut beti, alde horretatik. Egia da ez naizela segurtasunez ibiltzen. Esate baterako, zebra-bide bat igaro behar dudanean, urduri jartzen naiz. Ezagutzen ez ditudan tokietan, edo jende asko dagoenean, berdin. Oso ondo kontrolatu behar ditut oztopoak. Laguntza behar izaten dut kasu horietan.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Caser Anaka

Urtero bezala, San Pedro eta San Martzial jaiak hurbiltzen direnean, Caser Anakan kantinera eta sarjentua hautatzen dituzte. Aukeraketa zenbait hautagairen artean egiten dute, eta bozka emateko egunak antolatzen dituzte.

Aurten, Purificación Aramburu Guridi izan da aukeratutako kantinera. 79 urte ditu eta irundarra da, 7 urte daramatza Caser Anakan, eta laugarren aldiz aurkeztu du bere burua kantinera izateko. Boto gehien jaso zituen Aramburuk, eta ilusioz eta pozez hartu zuen albistea. Nagusilanek antolatutako gitarra emanaldia egin zuten botoen zenbaketarekin batera.

Sarjentua 61 urteko José Miguel Moreno izango da. Caser Anakara heldu berria da.

Ekainaren 18an, Alarde tradizionaleko San Miguel konpainiak Caser Anaka egoitzan entsegua egingo du. Konpainiako zenbait kidek, kapitainak eta kantinerak zentroan desfilatuko dute, Purificacionekin eta José Miguelekin batera. Ekainaren 25ean Anaka konpainiaren txanda izango da:

Nagore Tejedor, Meakako kantinera

Nagore Tejedor Caser Anakako animazioaren arduraduna, Meakako kantinera izango da aurten: Berri pozgarria izan da erresidentzian, eta ospatu egin dute. San Martzialen inguruko jarduerak eta prestaketak antolatzeko ardura hartu ohi du Nagorek Caserren.

“Istorio guztiek *Bidasoaren lurraldea*rekin zerikusia dute”

Luis Sagües, “Olvidos del recuerdo” liburuaren idazlea

Luis Sagües Errandoneak Dunboa eskolan eta Pio Baroja Institutuan ikasi zuen. Gero Euskal Herriko Unibertsitatera joan zen Zuzenbidea ikasteko, eta orain abokatua da, baina ez da horretaz bizi. Hoteletan harreragile gisa lan egiten du. Lanbide horrek bizitza nomada samarra ahalbidetu dio, abokatuaren bizitza sedentarioagoa dela uste du. “Olvidos del recuerdo” liburua idazteko bere lan jardunaldia murriztu du. *“Nire fakturak ordaintzeko behar dudana irabazten dut, eta horrela, denboraz aberatsagoa naiz”*. Orain Zurichen bizi da, Irun eta bere jendea faltan botatzen ditu, eta Luisen ustez, “Olvidos del Recuerdo” pixka bat terapeutikoa izan da.

Lehenik eta behin, zorionak liburua idazeagatik. Zertan datza?
Mila esker. 18 istorio labur dira. Haien guztien lotura Iñigo Arregi narratzailea da. Berak bere arbasoei entzundako istorioak kontatzen ditu, batzuk Orkolagako gezur-etxapean kontatuak, Irungo Kale Nagusian kokatzen dudan taberna klandestino moduko batean, ostatu bateko sotoan. Internet edo telebistarik gabeko garaiak ziren, eta han biltzen ziren pertsonaia xelebreak, sutondoan istorioak kontatu eta entzutera. Horietako bat attona Mashimino zen, Iñigoren arbaso zaharra... Beste perstsonaiak ere badaude: Intxaurra harroa, Zatorra sorgina, Tontobobo azkarra, Arroka garaiezina, Madame Luti misteriotsua…

Eta zergatik "Olvidos del Recuerdo"?
Tituluak, inor gutxik oroitzen dituen istorioak islatu nahi ditu. Orainaldiko iturrietatik sortu, baina iraganean itsasoratzen diren istorioak, eta etorkizun batean edango zitezkeela kontutan hartu gabe kontatu izan ditugunak.

Kontatzailea Iñigo Arregi da, errealitatean existitzen da?
Ez, fikziozko pertsonaia da. Baina leku zehatz bateko sustrai sakonak dituen pertsona irudikatzen du. Kasu honetan, leku hori Bidasoaren lurraldea da (El país del Bidasoa), eleberrian batzutan erabiltzen dudan Barojaren esamoldea. Pertsona hauek istorio zahar asko dakizkite, baina ez dira jakitun altxor bat daukatenik, ahozko istorioa galtzen delako.

18 kontakizun horietan istorio eta bizipen pertsonalak daude?
Beno, istorio horiek mende ezberdinetan gertatu izan dira. Badago Oiassoko baskoi bat Erromako legiotik desertatu duena, Frantzia naziko kolaboratzaileen aurkako hendaiar bat , Hondarribiko kortsario damutu bat, Ondarraitzeko lehen surfista, edo "Bidasoaren lurraldeko" lehen futbol selekzioa… Bizitza horiek bizi ahal izatea gustatuko litzaidake, baina zoritxarrez ezinezkoa izan da, edo behintzat ez dut gogoratzen...(Barre egiten du)

Zure bigarren liburua da, kostatu zaizu idaztea?
Bai, nire bigarren liburua da. Oso esperientzia baikorra izan da. Istorio guztiek “Bidasoaren lurraldea”rekin zerikusia dute, eta idazten ari nintzela, nolabait lurraldearekin lotuta sentitzen nintzen. Oker historikoak ez egiteko, Bidasoko herriei buruz pixka bat ikasi nuen. Suitzan nengoen, baina nire pentsamenduak Bidasoan zeuden.

Nola ikusten duzu literaturaren panorama gaur egun?
Oso ondo. 2014ean Irundik joan nintzenean, lau idazle berri elkartu ginen: “Bidasoko belaunaldia” deitu genion. Orain, hamar baino gehiago gara. Ikuspuntu ekonomikoaren aldetik, literaturak oso gutxi ematen du, dirua irabaztea talentu asko duen jendeak bakarrik lortzen du, Belén Estebanek adibidez....(barre egiten du) Baina horrek bere ikuspuntu baikorra ere badauka, dirua sartzen denean, normalean dena usteltzen delako.

Non lortu daiteke zure liburua?
Oskarbin, Irunen hainbeste laguntza eman duen liburudendan. Euskal Herrian horren zabaldua dagoen Elkarren ere bai, eta Amazoni esker, mundu osoko edonork eskura dezake. Informazio gehiago, Facebook-en jaso daiteke. Bertan, laguntza emateko, “Atsegin dut” sakatzea eskertuko nuke.

Eskerrik asko elkarrizketa emateagatik, ziur "Olvidos del recuerdo"k arrakasta handia izango duela.
Eskerrik asko zuei.

Amaiera tristea izan du Real Unionen denboraldiak

Taldeak ez du igoera faserako txartela lortu, eta Eneko Romo kapitainak futbola utzi du

Epaileak txistua jo zuenean, burumakur geratu ziren Real Unioneko jokalariak, Stadium Galeko berdegunean. Zale asko eta asko purrustaka atera ziren, taldeak azken jardunaldietan emandako itxura pattalak amorratuta. Ez ziren jokalariak agurtzera geratu, eta ez ziren konturatu Eneko Romo zelaiaren izkin batera hurbildu zela, harmailan zeuden senideen eta lagunen babesa eskertzera. Oharkabean pasa zen kapitain handiaren agurra. Ondoren, lagunartean jaso zuen omenaldi xumea.

Lau puntu gehiago eskuratuta, play offerako txartela lortuko zukeen Real Unionek. Garaipen bakarra erdietsi du, ordea, azken bederatzi jardunaldietan. Ia denboraldi osoan zehar play off postuetan ibili ondoren, gainbehera itzela bizi izan du taldeak, eta pentsaezina zirudiena gertatu zaio. Min hartutako jokalarien hutsunea eta partida gehien jokatu dituztenen nekea nabaritu ditu taldeak, eta azkenean, saririk gabe geratu da. Hausnarketa zabalago baten beharra azpimarratu du, hala ere, Aitor Zulaika entrenatzaileak: "Badakigu jasandako lesioak arrazoietako bat direla. Baina horretan bakarrik oinarrituko bagina, oker ariko ginateke. Hori aztertu beharra dago, baina beste aspektu batzuk ere bai".

Bosgarren tokian amaitu du liga Real Unionek. Aurreko urtean bezala, 60 puntu bildu ditu, guztira. Eta iaz bezala, baita ere, taldeak azken jardunaldietan beherakada "handia" jasan duela onartu du Zulaikak. Gertatutakoaren analisi sakona egingo dutela baieztatu du entrenatzaileak, eta horretarako, kluba eta taldea osatzen duten arlo guztiak kontuan hartuko dituztela. "Gero ondorioak atera eta erabakiak hartuko ditugu", azaldu du Zulaikak. Ezusterik ez bada, azpeitiarrak jarraituko du aulkian. 2016/2017 denboraldiko taldea osatuko duten jokalarien zerrenda osatzea izango da hartu beharreko erabakietako bat. Urtero bezala, jokalari batzuk taldetik irten eta beste batzuk helduko dira. Galera handi bat izango du, baina, Real Unionek, eta ez futbol zelaian bakarrik. Eneko Romo kapitainak futbola utzi baitu. Leioaren aurkakoa izan zen iruindarraren azken partida.

Kapitainaren agurra

Inor gutxik zuen Eneko Romoren erabakiaren berri. Galeko harmaila nagusiaren eskuin aldeko zaleen artean, ordea, susmoa zabaldu zen, Leioaren kontrako azken partidan zehar. Jokalari nafarrak defendatu izandako talde guztietako kamisetak zeramatzan lagun eta senide multzoa zegoen izkin batean, pankarta handi baten atzean. Atsedenaldiaren ondoren, Romo berotzen hasi zenean, txalo zaparrada eta animoak jaso zituen. 56.minutuan Eneko Eizmendi ordezkatzeko berdegunera irten zenean ere, berdin. Neurketaren amaieran, zale zorrotzenek txistuka agurtu zuten taldea, eta haserre hartu zuten etxerako bidea. Beste batzuk, jokalariek denboraldian zehar egindako lana txaloz aitortzeko geratu ziren. Baina gutxi batzuk besterik ez ziren izan Eneko Romori agurra eman ziotenak.

Une hunkigarriak bizi izan zituen, hala ere, jokalari iruindarrak, senideak eta lagunak futbol zelaira jaitsi zirenean. Besarkadak banatu zituen, eta argazkiak atera zituen ondoren. Baita aurtengo taldekideekin ere. Aldagelatik pasa ondoren, Stadium Gal jada hutsik zegoela, omenaldi xumea jaso zuen lagunartean. Txapela, taldekideek sinatutako kamiseta, eta beste zenbait opari jaso zituen. Bertaratutakoek abestutako bertsoarekin malkoei eutsi behar izan zien, ondoren. "Oso gertuko jendea etorri da, eta hunkituta nago", onartu zuen. Azken urtea izango zuela jakinda, aurten "gozatu" egin duela baieztatu zuen Romok. Arrazoiak ere argitu zituen: "Prozesu bat izan da. Lesioak eta minak izan dira erabakia hartzera bultzatu nautenak. Gorputzak eskatzen zidan zerbait da".

Hogei urte baino gehiago egin ditu Eneko Romok futbolean, Pamplona, Athletic, Alaves, Eibar, Rayo Vallecano, Lleida, Peña Sport eta Real Union taldeetan. 2007an iritsi zen Irunera, eta zortzi denboraldi egin ditu Galen. Tartean, urte betez aritu behar izan zuen Tafallan. "Urte asko eman ditut Irunen, bizipen ederrak izan dira", gogoratu du nafarrak. Talde txuribeltzaren aro modernoko urterik onenak bizi izan zituen, eta Santiago Bernabeun Real Madril Errege Kopatik kanpo uzteko balio izan zuen burukada elkartearen historiako mugarrietako bat da jada. "Real Union txapeldun handia izan da, eta jende askok garai onenetako jokalariekin konparatzen gaitu. Izugarria da hori niretzat", aitortu du. Kapitaina eta taldean ardura izan duen jokalaria izan da Romo azken urteotan. "Garai gogorrak dira klubarentzat, eta jokalariek zelaitik laguntza handia eman dezakegula uste dut", adierazi du nafarrak. Eredu izango da Eneko Romo, ondoren datozenentzat. Orain, 37 urte dituela, futbola uztea erabaki du.

"Lesioak eta minak izan dira erabakia hartzera bultzatu nautenak"
"Real Union txapeldun handia izan da, eta jende askok garai onenetako jokalariekin konparatzen gaitu. Izugarria da hori niretzat"
Eneko Romo

Udako campus-ean izena eman daiteke

8 eta 14 urte arteko haurrei zuzendutako campus-a antolatu du Real Unionek uztailerako. Guztira hamazazpi edizio izan ditu udako futbol eskolak, formatu ezberdinetan. Gaur egun, futbola eta bestelako jarduerak uztartzen dituzte. Besteak beste, lau irteera egingo dituzte. "Ur jarduera asko egongo dira, eguraldia lagun baldin badugu, behintzat", argitu du Richard Tenreiro Real Union Bko jokalari eta campus-eko monitoreak.

9:00etatik 13:00era egingo dituzte jarduerak, astelehenetik ostiralera. Nahi duten gurasoek 8:30etan eraman ahal izango dituzte haurrak, eta 13:30etan jaso. Aste bakarreko matrikulak 80 euro balio du. Deskontuak eskainiko dituzte, hala ere, aste baterako baino gehiagorako izena ematen dutenentzat, bazkideentzat, anai-arrebentzat edo urtean zehar klubeko futbol eskolan parte hartu dutenentzat. Stadium Galeko bulegoetan izena eman daiteke, edo 943 620103 telefono zenbakira deituta, bestela.

Artalekutik irtengo da Asobal Ligarako trena

Etxean ariko da Bidasoa, goi mailara bueltan eraman dezakeen fasean

Asobal Ligara igotzeko lauko finala jokatuko du Bidasoa-Irunek, ekainaren 4an eta 5ean. Etxean izango da, Artaleku kiroldegian. Jokalekua eta zaleak alde izango ditu talde irundarrak, Ohorezko Mailara bueltatzen saiatzeko. Horixe izan da taldearen helburua denboraldiaren hasieratik, eta gorabehera handiak pasa ondoren, aukera ederra du, parez-pare. Azken ahalegina besterik ez zaio falta.

Liga irabazteko eta igoera zuzena lortzeko motibazioarekin heldu zion Bidasoak 2015/2016 denboraldiari. Lehen jardunaldietan, erronka hori lortzeko moduko taldea eta gaitasuna zituela erakutsi zuen. Arerio gogorrak topatu ditu, ordea, aurtengo ligan. Valladolidek Ohorezko B Mailako errekorra hobetu du, puntuei dagokienez. Partida bakarra galdu du, eta beste bat berdindu. Gainerako lehia guztietan garaile izan da, 57 puntu pilatuz. Bidasoak 51 lortu ditu, aurreko urte gehienetan liga irabazteko adina. Aurtengoan, ordea, huts egiteak gogotik ordaindu ditu.

Sailkapeneko bigarren tokia, eta ondorioz igoera fasea antolatzeko aukera ere, azken unean lortu ditu Bidasoak. Hirugarren postuan ekin zion azken jardunaldiari, maiatzaren 21ean. Bere neurketa irabazita ere, Palma del Rioren emaitzaren mende zegoen. Emozioz beteriko jardunaldia izan zen. Bidasoak Zamora laugarren sailkatuaren etxean irabazi zuen (24-31). Eta Palma del Riok, gol bakar bateko aldearekin galdu zuen Ciudad Real hiriko Quijote Arenan (25-24). Ciudad Realek play off-erako txartela lortu zuen horrela, eta bide batez, Bidasoari mesede egin zion.

Garaipen handi baten moduan ospatu zuen Bidasoak Quijote Arenako partidaren amaiera. Ligako azken jardunaldietan izandako beheraldiaren ondoren, azken momentuan "euforia" unea bizi izan zutela onartu du Asier Zubiria kapitainak: "Datorrena prestatzeko beste poztasun bat eman zigun. Entrenamenduetako giroan nabari da". Konfiantza ere berreskuratu zuten horiek Zamoran, norgehiagoka txukuna egin baitzuten: "Zalantza eta hutsune batzuekin joan ginen Zamorara. Baina azken aldian jokatu dugun partidarik onena atera zitzaigun. Jendeak oso lasai jokatu zuen".

Hirugarren play off-a, lau urteko epean

Esperientzia du jada Bidasoak lauko finalean. 2012/2013 denboraldian jokatu zuen lehena, aurreko urteetan Ohorezko B Mailari eusteko larri ibili ondoren. Fase hura ere Bidasoa aldean antolatu zuen, Hondarribiko Hondartzan, eta Artalekun. Finalera heldu ziren irundarrak, baina Puente Genilen aurka galdu zuten. "Talde gazteegia genuen, esperientzia eskasekoa", gogoratu du José Ángel Sodupe presidenteak. Azkenean, Atlético de Madrid taldea desagertu zenez, hurrengo urtean goi mailan jokatzeko aukera izan zuen Bidasoak. Baina beranduegi iritsi zen konfirmazioa, eta Ohorezko B Mailarako prestatutako talde xumearekin, sufritzea egokitu zitzaion Bidasoari. Ezin izan zion mailari eutsi.

Iaz, Asobalera bueltatzeko moduko taldea eratu zuen, ustez, klubak. Itxaropen handiak piztu zituen taldeak, baina ez zen lehiakorra izan. Play off-erako ozta-ozta sailkatzea lortu zuen, eta Santanderren jokatutako igoera fasean, finalerdian gelditu zen kanpoan. "Hirugarren saiakeran arrakasta izan dezagun espero dut. Jokalariak, behintzat, oso animatuta daude. Bidasoa Asobal Ligara berriro eraman zuten jokalariak izan daitezke", adierazi du Sodupek. "Horixe da klubari dagokion kategoria", erantsi du.

Nola aurre egin hitzordu garrantzitsuenari

Aurreko bi igoera faseetan egon da Asier Zubiria atezaina, eta kontuan hartzeko gako batzuk eman ditu: "Horrelakoetan, burua argien duenak, lasaitasun handiena daukanak izaten du irabazteko aukera gehien". Bi norgehiagoka jokatu behar direla kontuan hartuta, arlo fisikoak eta "freskotasunak" ere garrantzia dutela onartu du Zubiriak. "Alde horretatik, ez dut inolako kezkarik. Azken hiru asteetarako prestaketa zehatza egin dugu, eta taldea sasoian helduko da", baieztatu du Iñaki Emaldi kirol zuzendariak. Estatistikek diote, askotan, play off-a antolatu duen taldeak ez duela igoera lortu. Hala ere, Asier Zubiriak nahiago du fasea Artalekun jokatu: "Zaleen aurrean aritzeak asko laguntzen du. Gainera, nik kanpoko taldeekin Artalekun jokatu izan dut, eta badakit ez dela batere erosoa".

Aurten etxean sendo aritu da Bidasoa-Irun. Play off-ean parte hartuko duten beste hiru taldeek, Irunen galdu dute jada. "Horrek konfiantza ematen digu", aitortu du Zubiriak. Giroa alde izango du Bidasoak, asteburuan, eta segur aski, baita aste osoan zehar ere. Alabaina, kapitainak uste du taldeak ahalik eta isolatuen mantendu behar duela: "Kontzentratuta egon behar dugu, kanpoko zaratatik urrun". Lasai egoten eta haien eskubaloi mailarik onena berreskuratzen ahaleginduko dira bidasoarrak. Pistara irteten direnean, ordea, eskertuko dute Artalekuko harmailetatik jasoko duten bultzada.

SARRERAK:

Bazkide ez diren haurrak (14 urte arte):

- Jardunaldi bat: 15 euro.
- Bi jardunaldiak: 20 euro.

Bazkide ez diren helduak:

- Jardunaldi bat: 25 euro.
- Bi jardunaldi: 40 euro.

Bazkide diren haurrak:

- Jardunaldi bat: 10 euro.
- Bi jardunaldi: 15 euro.

Bazkide diren helduak:

- Jardunaldi bat: 15 euro.
- Bi jardunaldi: 25 euro.

ORDUTEGIA:

Larunbata, ekainak 4:

18.00: Bidasoa-Irun – BM. Alarcos Ciudad Real.

20.00: ARS Zumosol Palma del Río – MMT Seguros Zamora.

Igandea, ekainak 5:

12.00: Hirugarren eta laugarren posturako lehia.

16.00: Finala.

Sonia Bañeza irundarraren beste espedizio bat

Andeetako zenbait tontor igo ditu urtarrilean eta otsailean, Isabel Coll valentziarrarekin batera

Sonia Bañeza
irundarra
47 urte
Pinturas Bidasoa

Mendizaletasun handia dago gure lurraldean. Aiako Harria, Jaizkibel edo Larrun dira gure mendietako batzuk, eta gertu ditugu Pirinioak, edo Txindoki. Sonia Bañeza irundarra inguruko mendietan ibiltzen hasi zen, eta pixkanaka, bestelako helburuei eta igoerei egin die aurre. Aurten Andeetan egon da Isabel Collekin batera, eta mendikateko tontor altuenetako batzuk igo ditu.

17 urterekin murgildu zen Sonia Bañeza mendiaren munduan, Erlaitz Elkartearen eskutik. Beranduago, Irungo Mendizaleaken irteeretan ere parte hartu du. Pirinioetako 170 tontor baino gehiago ezagutu ditu. 4.000 eta 5.000 metroko mendiak ere igo izan ditu.

Duela lau urte urrats handi bat eman zuen mendizale gisa, eta urteko espedizio bat egiten hasi zen. Nepalera, Kirgizistanera, Andeetara etab. “6.000 metroko lehen tontorrak igotzeak ilusioz bete ninduen, eta helburu handiagoak planteatuz joan nintzen”. Duela bi urte, Aconcaguara igotzea jarri zuen helburu, eta lortu ez bazuen ere, 1000 metro ingurura gelditu zen. Baldintzak ez ziren onak, eta Soniak arazoak izan zituen behatzetan.

Eroriz ikasten da oinez, eta Sonia adibide egokia da. Aurtengo urtarrilerako eta otsailerako beste espedizio bat antolatu zuen. Isabel Coll valentziarrarekin batera, Boliviarako bidea hartu zuen. La Paz hiriburuan aklimatazioa egin ondoren, 5.500 metroko bost tontor igo zituzten.

Urtarrilean eta otsailean etengabeak dira euriteak Bolivian. Beraz, baldintzak ez dira mendigoizaletasunerako aproposak. "Euri garaian joan ginen, eta baldintzak beldurgarriak ziren: hotza, haizea, elurra... Aurpegia zeharo izoztuta gelditu zitzaidan. Gidak ez jarraitzea proposatu zigun, baina guk aurrera egitea erabaki genuen". Zailtasunak-zailtasun, Soniak eta Isabelek El Huyna Potosi (6088 m.), Alpamayo txikia eta Austria tontorra igo zituzten.

Eguraldiak tontorretara igotzea galarazten zuenean, Heriotzaren Ibilbidea, Ttiticaca aintziraren inguruko edo Isla del Soleko ibilbideak egin zituzten. Bidaia osoa izan zen, eta ahal bezain beste aprobetxatu zuten. "Boliviara joatea erabaki genuen, aklimatazioa egiteko herrialde egokia delako, bere goi-lautada dela eta. Gainera, herrialde merkea da".

Horrelako abentura baten inguruan, sekula ahaztuko ez diren bitxikeria eta gertakizun asko sortzen dira. 5.000 metrotik gora zegoen aterpe batean, zenbait ikurrina eta Txindoki mendiaren argazkia topatu zituzten. "Gauza horiek ilusioa ematen dute, jendeak seinale edo oroigarri gisa uzten ditu".

Mendia baino gehiago

Mendiak pisu garrantzitsua izan du bidaian, baina azken abentura horretan ezagutu eta ikasi dituen beste gauza asko baloratzen ditu Soniak: “Paisaiarekin eta hango jendearekin gelditu nintzateke. Oso pobreak diren arren, adeitsuak eta langileak dira beti. Ez genuen inolako arazorik eduki bidaia osoan zehar”.

Etorkizunerako helburuak

Hurrengo bidaietarako, Sajama mendia, Boliviako altuena, edo Llimani handia igotzea jarri ditu helburu. “Urtean espedizio bat egiten saiatuko gara, eta nire ametsa, 8.000ko bat egitea da”.

Mendizaletasuna

Erlaitz Elkartearen lana aitortu eta eskertu nahi izan du Soniak, bukatzeko. “Eskertzekoa da egiten duten lana. Mendiaren inguruan dagoen guztia hobeto ezagutu arazi zidaten niri”. Bestalde, mendian ibiltzera animatu nahi izan du jendea. Pixkanaka, eta kontu handiz, hori bai. “Inguruko mendi txikiekin hasten zara, eta pixkanaka zailtasuna eta altuera handitzen dituzu. Horrelako igoeretarako prestatuta egon beharra dago, arlo fisikoan eta mentalean”.

San Vicente de Paul LH1 Naroa Gomez



San Vicente de Paul DBH1 Marta Diez

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Jose Maria Peruarena Hondarribiko 10 urteko haur portuarrak kontatua. (1959ko apirila). (El Bidasoa, 1959-V-9)

Fernando eta Bikáriyua

Béin Fernándo Amezketárrari Bikáriyuak egíntzion konbidátu bazkáltzera eta egún urrétan Fernándo fántzen beré sémiakin bazkátzera. Eta Fernándok esántzion beré sémiari:

—Zu emen egón, nik bazkáldu árte.

Eta bazkáltzen aritzen da Fernándo. Eta Bikáriyuak esáten dió:

—Fernándo, mixi aitarén egin b´ardá.

Eta Fernandok:

— Aitarén eta Espiritu Sántuan Amén.

Eta Bikáriyoak esáten dio:

— Esta sémia?

Esáten dio Fernándok:

— Semía? Até-átzian? Semé, etórri góitti!

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Elikagaien bankurako jakiak bildu dituzte Toki Alaiko ikasleek

1.564 kilo jaso dituzte ikastetxeetan eta supermerkatuetan

Jakiak biltzeko kanpaina egin dute Toki Alaiko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.mailako ikasleek. 1.564 kilo jaso dituzte guztira, eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuari eman dizkiote, beharra duten familien artean bana ditzan. Aldez aurretik, beste zenbait aldiz kolaboratu izan du ikastetxeak Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin. Toki Alaik Irunen dituen egoitzetan, eta Dunboako Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroetan egin zituzten bilketak maiatzean zehar, Dunboa ikastetxeko lagunen laguntzarekin. Ikasleek etxetik eraman zituzten elikagaiak.

Ikastetxeetatik kanpo ere materiala bildu zuten, maiatzaren 18an, proiektuari babesa eman nahi izan zioten zenbait supermerkatutan (Alcampo, Eroski eta Carrefour Express). Bezeroei proiektua aurkeztu eta laguntza eskatu zieten ikasleek, eta ekarpenak bildu zituzten. Oinarrizko produktuak jaso zituzten, elikagaiak eta garbiketarako produktuak. “Oso harrera ona izan du proposamenak”, baieztatu dute arduradunek. Maiatzaren 19an, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Oiartzunen duen egoitzara eraman zituzten bildutako jakiak, Distribuciones Zamora enpresaren laguntzaz. Modu batean edo bestean laguntza eman duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete arduradunek.

Proiektu zabalago baten parte izan da bilketa

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa proiektuaren baitan egin dute Toki Alaiko ikasleek elikagaien bilketa. 2.DBHn txertatuta dituzte ekintza horiek. Beste lau gai sozial landu dituzte, zenbait erakunderekin elkarlanean: Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearekin lanean aritu dira, Ibarrola erreka garbitu dute Aritzalde taldearekin, Gureak-en tailerrean egon dira Atzegi adimen urritasuna dutenen elkartearekin, eta belaunaldien arteko transmisioa aztertu dute, Artiako Eguneko Zentroan. Elkarte horiek ikasgelan egon dira lehenengo, hitzaldiak ematen. Gero, talde bakoitzak zein elkarterekin lan egin nahi izan duen aukeratu du. Prozesuaren bigarren zatian, kalera irten dira ikasleak, komunitateari zerbitzu bat eskaintzera.

Asmo pedagogikoa eta solidarioa uztartzen dira Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioan. Proiektuak dituen onurak azaldu dituzte arduradunek: “Ikasitakoa errealitatera eraman daiteke, ekintza baten moduan. Horri esker, kalitatezko zerbitzua eskaintzen zaio komunitateari. Bestalde, zerbitzuak ikasketa hobetzen du, zentzua ematen dio, eta ikaslea motibatu egiten du”. Toki Alaiko ikasleek elikagaien bankuari egin dioten ekarpena ikasketa eredu horren adibide aproposa da. Iaz, 21.000 familia lagundu zituen Gipuzkoako Elikagaien Bankuak.

MUSIKIRUN 2016. KONTZERTUAK BADATOZ !!!!

Zer? Madrilgo Xpresidentx, Zrauzko The Nephews band, eta Madrilgo Delamina taldeen kontzertuak.MUSIKIRUN 2016ko irabazlea aukeratzeko: http://maketas.irun.org/

Noiz? Ekianak 6.

Non? Estebenea jatetxean (Olaberria auzoa 51.

Ordua? 20:00etan.

IRUNGO BIDEO GAZTEAREN XX. LEHIAKETA 2016

Bidasoa Eskualdea: Eskualdeko zuzendariek egindako lan nabarmenak hautatzea. Edozein nazionalitatetako zuzendariak. Gehienez, 2 film labur aurkeztu ahalko dira. Soilik fikziozko film laburrak onartuko dira, edozein hizkuntzatan, film bakoitzaren gehienezko iraupena: 20 minutukoa.

Film labur gehiago saila:
15 eta 30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute, interesatzen zaien edozein gairi buruzko sorkuntzazko ikuspegia adieraziz, esperientziak, iritziak, proposamenak edo iradokizunak partekatzeko. Gaia librea izango da: lan esperimentalak, bideoklipa, bideo art, animazioa, stop motion...

irungozinetabideo gazteaslehiaketa

Bidalketa: Lanak eta izen emateak online bidaliko dira Click for Festivals (www.clickforfestivals.com) plataformaren bidez.

Epea: Urriak 7

irun www.irun.org/igazte gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

GAZTEGUNEAN ELKAR IKUSIKO DUGU !!!!

Sanmartzialak hurbil daudela, dena prestatzen ari gara ZURETZAT!!!
- Jaiez zure kaxa disfruta dezazun.
- Irungo gazteek beraientzako gune bat eduki dezaten.

Orain ZUK erabakiko duzu ZER nahi duzun egin. Ekainaren 24, 25 eta 26an KARPA bat instalatuko da Irunen, zure ideien zain gaude abian jartzeko: konztertuak, Break Dance, Graffiti, Parkour, Antzerkia. 2016ko sanmartzialak. Antola ezazu zure jaia, zeu zara eta protagonista!!!

GORA IRUN !!!!!!!! GORA SAN MARTZIAL !!!!!!

XVII. ENPLEGUAREN ASTEA

Eskaintzak kontsultatu eta izena eman ahal izango duzu, zure profilarekin gehien egokitzen diren eta interesatzen zaizkizun horietan (3 eskaintza, gehienez) www.elespazio.com orrialdean. Eskaintzen diren postuak interneten, maiatzaren 30ean, 31n eta ekainaren 1ean argitaratuko dira, ordubiak arte,www.elespazio.com web gunean.

Ekainaren 9an FICOBAn 09:00etatik 14:00etara
- Hautatzeko lan-elkarrizketak: hautagaitza web gunera bidali duten eta aurretik hautatu dituzten pertsonentzat.

- Stand libreak: Lanbide, Pôle emploi, Gazte Informazioa.

Bulegoak, Aldi baterako enpresak, eta enplegua eskaintzen duten bestelako erakundeak.

Maiatzaren 17tik uztailak 17ra

Zer? GAZTE ARTEAN-EXPO ekimeneko seigarren erakusketa aurkeztu da. Oraingoan, Maialen Arocenak "Introbatida" izenpean dakarren erakusketa izango da ikusgai, mundua barrutik aztertzeko ekintza.

Non? Martindozenea Gaztelekuan.

Ordutegia? Asteartetik larunbatera, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara.

Prezioa? Doako sarrera.

Maiatzaren 20tik ekainaren 12ra

Zer? “Real Unionen mendeurrena” erakusketa.

Non? Amaia KZn.

Ordutegia? Asteartetik larunbatera: 18:00-21:00 / Igandetan eta jaiegunetan: 11:30-13.30.

Prezioa? Doako sarrera.

Anaka-Puianako jaiak (Ekainak 5)

- 09:00: Txistularien Udal Banda, auzoko kaleetan zehar.
- 10:00: Patata tortilla lehiaketa: Washington tabernaren ondoan.
Babesleak: Coviran, Bar Restaurante Mariño, Asador Anaka Berri eta Bar Washington.
Izen-ematea: maiatzaren 30-tik ekainaren 2-ra, auzo elkartean (19:00 - 20:00).
Parte hartzaileek erabili beharreko tresna guztiak eraman beharko dituzte (zartagina, sua, etab.) Antolatzaileek osagaiak jarriko dituzte.
- 11:30: Auntxa Trikitixa Eskola eta Kontserbatorioko trikitixa taldea auzoko kaleetan zehar ibiliko dira.
- 12:30: Toka txapelketa: Bar Restaurante Mariñok antolatuta, tabernaren aurrean.
- 12:30: Kontzertua: Irun Hiria Musika Banda. Aristegi Enbaxadorea plazan.
- 16:30: Futbolin txapelketa: Jaizkibel Tabernak antolatuta. Umeentzako arratsaldea Aristegi Enbaxadorea enparantzan:
- 16:30: Umeentzako jolasak Pituren eskutik.
- 18:00: Txokolatada Caser egoitzak antolatuta.
- 18:30: Dantza erakustaldia Irungo akademia ezberdinen eskutik.

Ekainak 11

Zer? VII.Juanma Garate - bizikletaren festa.
- 16:00: San Juan plazako gunearen irekitzea.
- 16:00: Umeentzako ekitaldiak.
- 16:30-22:00: Ciclo Indoor: San Martzialera kronoa.
- 19:00-21:00: Cycling Nae System saioa (spinning herrikoia- 2 Saio), aldez aurretik izena eman beharra dago, Kirolprobak web loturaren bitartez.

- 21:30-23:00: Bakarrizketak.

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 943 628 333
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, berokuntza elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04297 93.000 €

Pisua salgai Hendaian
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

Pisua salgai Irun Azken-Portun
Azalera 82 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, igogailua, trastelekua eta bista politekin.
Pisu erreformatua.
Ref: 04422 180.000 €

Pisua salgai Irun Alde zaharran
PRIMERAKO AUKERA!!
Azalera 35 m², gela 1, bainugela, komuna, egongela, sukaldea.
Ekikuntza eta pisua erreformatuak.
Ref: 04399 70.000 €

Pisua salgai Irun Palmeran
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04299 248.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 52 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea
4. pisua igogailurik gabe.
Ref: 04464 82.000 €

Pisua salgai Irun Arbes
Azalera 67 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, gas berokuntza, igogailua, eguzkitsua eta bista politekin.
Ref: 04441 165.000 €

Pisua salgai Hondarribian
Azalera 46 m², 2 gela, bainugela 1, egongela eta sukaldea.
Pisu erreformatua.
Ref: 04435 140.000 €

Etxea salgai Hendaian
Azalera 110 m², 3 gela, bainugela 1, komun 1, egongela, sukaldea, terraza, jardina, gas berokuntza eta eguzkitsua. Alde oso lasaia.
Ref: 04336 285.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

- Gremioen koordinazioa eta erreformak
- Lakatzea eta bernizatzea
- Bainuontzien esmaltatzea
- Pintura orokorrean

Bidasoa pintura eta dekorazioa

943 63 11 58
619 889 723
Facebook: pinturasbidasoairun
pinturasbidasoairun@gmail.com